

2026KO APIRILA
34. ZENBAKIA
LAZKAO

MAIZ PIDE ALDIZKARIA



52. UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

DATAK

UZTAILA

1. txanda: uztailaren **6tik 17ra**
2. txanda: uztailaren **20tik 31ra**

ABUZTUA

1. txanda: abuztuaren **3tik 14ra**
2. txanda: abuztuaren **17tik 28ra**

IRAILA

1. txanda: abuztuaren **31tik**
irailaren **11ra**
2. txanda: irailaren **14tik 25era**

ORDUTEGIA

Goizez | 9.00 - 13.30
Arratsaldez | 15.15 - 19.30

PREZIOAK

539€

Ikastaroa eta
mantenu osoa.

426€

Ikastaroa
eta bazkaria.

*Udan 3 ikastaro eginez
gero, urrikoa **DOAN**
izango duzu.

Zenbat eta
gehiago ikasi,
orduan eta
gutxiago
ordainduko
duzu!

ESKAINNTZA



Maila guztiak. Zure mailara
eta helburuetara egokitutako
taldeak, Aletik C2ra.



Azterketa prestakuntza.
Azterketa ofizialak
prestatzeko aukera dago
(HABE, IRALE, IVAP...).



Eskolaz kanpoko ekintzak.
Txangoak, kirol eta kultur
ekintzak, bisitak eta askoz
gehiago.



Euskaraz Bizi Taldea.
Erabilera eta mintzamena
lantzeko talde berezia.

*Uztaileko 2. txandan eta iraileko 1. txandan.

**Eskatu
informazio
gehiago**



maizpide.eus

OSPAKIZUNAK	A1	4
NONGOAK GARA	A1	10
SENDABELARRAK	A2	11
ELKARRIZKETA: ELI ETA ALEX	A2-B1	15
ELKARRIZKETA: JOSU ZUBIA	B1-A	18
KALE-INKESTA LAZKAON	B1-B	20
IKASLEEN INKESTA	B2-A	26
ERREPORTAJEA: BIZIOLA	B2-B	28
ELKARRIZKETA: OSAKIDETZA	B2-B	30
ELKARRIZKETAK: MINTZALAGUNAK	B2-C	32
ERREPORTAJEA: KILOMETROAK JAIA	B2-C1	35
IKERKETA: ADIMEN ARTIFIZIALA	C1	38
ERREPORTAJEA: AIZPEAKO MEATEGIA	C1	42
JOKOA: EUSKALKIAK	C1	44
JOSE LUIS DE MIGUEL GOGOAN	C2	46
FERNANDO GONZALEZ DE LANGARICA GOGOAN	B1 ONLINE	47

MAIZPIDE ALDIZKARIA. Lege gordailua: SS-0292/04

Parte hartzaileak: MAIZPIDE euskaltegiko ikasle eta irakasleak

Azala: Diana Iribarren Echavarri

Inprimategia: Antza Komunikazio Grafikoa (Lasarte-Oria)

Diseinua eta maketazioa: Antza Komunikazio Grafikoa (Lasarte-Oria)



Munduko ospakizunak eta errezetak

Eguerdiko A1 taldean herrialde askotako jendea elkartu gara, besteak beste, Honduraskoak, Marokokoak, Nikaraguakoak, Ekuadorkoak, Errusiakoak... Euskara ikasteaz gain, beste kultura batzuen inguruan ere asko ikasten ari gara. Horregatik, gure herrialdeetako ohiturak eta errezetak kontatuko ditugu.

RAMADANA

Ramadana oso hilabete berezia da musulmanontzat. Pertsona hobeak izateko, besteak laguntzeko eta ontasunaz pentsatzeko garaia da. Hil honetan pazientzia izaten eta maitasun handiagoa ematen ikasten dugu. Horregatik egiten dugu barau helduok; ez da sufritzeko, baizik eta garrantzitsua dena gogoratzeko.

Ramadan garaian helduok barau egiten dugu egunsentitik ilunabarrera arte. Gaua iristen denean, familia elkartu egiten da eta elkarrekin jaten dugu; ekintza horri *Iftar* deitzen zaio. Egun horietan gehiago egiten da otoitz, gehiago esaten da "eskerrik asko" eta inoiz baino hobeto portatzen saiatzen gara. Pazientzia izateko eta eskuzabala izateko bihotz-entrenamendua bezalakoa da.

Ramadan garaian, plater berezi asko prestatzen dira, hala nola, *chebakia*, *sellou*, *lamkharka*, *briouat* eta *harira*. 2026an, otsailaren 18an hasi zen eta martxoaren 19an bukatu.





SAN LAZARO jaia



San Lazaro jaian fede katolikoa eta Nikaraguako kultura herrikoa nahasten dira. Jaia batez ere Monimbóko (Masaya) Santa Maria Magdalena elizan ospatzen da. Espainian ezaguna bada ere, leku askotan ospatzen da. San Lazaro gaixoen eta animalien zaindaria da, eta Lazaro pobreen parabolari (alegoriari) lotuta dago. Egun horretan, txakurrak arropa koloretsuekin eta mozzorroekin janzten dira. Jendeak eskerrak ematen ditu jasotako mesedeengatik. Maskotak eta beste animalia batzuk ere eramaten dituzte. Eguna maitasunaren, itxaropenaren eta herri tradizioaren adierazpena da.





Uruguaiako CANDOMBE-A

Candombea Uruguaiako musika eta kultura adierazpena da. Montevideo hirian sortu zen, Afrikatik etorritako pertsonen ondorengoei esker. Candombean hiru danbor erabiltzen dira: chico, repique eta pianoa. Musika kalean jotzen da, batez ere, auzo zaharretan. Oso garrantzitsua da Uruguaiako kulturarentzat, identitatea eta historia adierazten dituelako. 2009an Unesco elkar-teak Gizateriaren Ondare Kultural eta Immaterial izendatu zuen.

Candombean oso garrantzitsuak dira "Negros" eta Lubolos" konpartsak, hau da, Beltzak eta Luboloak. Talde horiek inauterietan parte hartzen dute, eta musika, dantza eta kolore asko erakusten dituzte.

"Negros" edo *beltzak* afro-uruguaitarren ondorengoak dira. Luboloak, aldiz, pertsona zuriak dira, baina aurpegia beltzez margotzen dute. Konpartsak kalera ateratzen dira danborrekin eta arropa tradizionalarekin. Tradizio hau oso garrantzitsua da Montevideoko inauterietan, eta Candombea kulturaren parte garrantzitsua da.




LANTZEKO

inauteriak

Lantz Nafarroako herria da, Iruñetik 25 kilometrora dago, iparralderantz. Lantzeko inauterietan pertsonaia asko ateratzen dira. Horietako batzuk azalduko ditugu.

- Miel Otxin: Lastoz betetako erraldoia da Miel Otxin. Kapela edo txanoa, kartoizko kareta, alkandora, gerriko gorria eta galtza urdinak janzten ditu. Jendeak uste du lapurra zela eta horregatik, beldurra diote. Herritarrek eta inauterietako pertsonaia batzuk Miel Otxin harrapatzen saiatzen dira.
- Ziripot: Pertsonaia lodia da, bere arropa zakuekin eginda dago. Gorputza lastoz beteta du. Miel Otxini eta Zaldikori buruz istorio gaiztoak kontatzen ditu.
- Zaldiko: erdi-zaldi eta erdi-gizona da, Miel Otxinen laguna. Ziripot lurrera botatzen saiatzen da, Miel Otxin ez harrapatzeko.
- Txatxoak: Arropa koloretsua janzten dute eta aurpegia estalita dute. Eskuan makilak eta erratzak dituzte, eta jendearen atzetik korrika ibiltzen dira. Ziripot defendatzeko, Zaldiko harrapatzen saiatzen dira.

Lantzeko inauterietan Miel Otxin harrapatu nahi dute. Inauteriak amaitzen direnean Miel Otxin hil eta erre egiten dute. Ondoren, pertsonaia guztiek dantza egiten dute suaren inguruan.





EKUADORKO TIPULAKIA

Tipulakia Ekuadorko gastronomiaren ikurra da. Guayaquilen, kostako hiri batean, hasi ziren jaten kostako langileak. Arraina eta tipula dira osagai nagusiak.



OSAGIAK (4 lagunentzat):

- Arraina: kilo erdi bakailao.
- 5 litro ur
- Bi yuka
- Tipula bat
- Tomate bat
- Piper bat
- Bi baratxuri
- Martorria
- Bi limoi
- Espeziak (kuminoa, atxiotea, albahaka)
- Gatza
- Olio

PRESTAKETA:

1. Barazkiak eta arraina uretan irakin (15–20 minutuz).
2. Arraina atera eta xehatu.
3. Salda eta barazkiak irabiagailuan nahastu eta gorde.
4. Yuka aparte egosi (15–20 minutuz).
5. Dena platerean jarri eta tipula gordina gehitu.



AREPA VENEZUELARRA

Venezualako arepa tradizioaren eta familia-elkartasunaren ikurra da. Gosaltzeko oso ohikoa da, eta Venezuelaren benetako esentzia eta zaporea adierazten ditu.



OSAGIAK (4 lagunentzat):

- 2 edalontzi arto-irin aurregosi
- 2 ½ edalontzi ur
- Gatz koilarakadatxo bat.

HARAGIA EGITEKO OSAGIAK:

- Behi-haragi egosia eta xehatua, tipula, piperra, baratzuria, tomatea, olio eta gatz.

PRESTAKETA (20 MINUTU):

Ura eta gatz nahastu, arto-irina pixkanaka gehitu eta orekin egin. Orea zapaldu eta disko forma eman. Ondoren, plantxan edo zartaginean egin ahal dira. Su bizian kanpotik gorritu bigun geratu arte.

PRESTAKETA:

Barazkiak frijitu, haragia gehitu eta 30 minutuz egosi. Arepa ireki eta bete.



Nongoak gara? **ASMATU!!!!**

Olaberriko taldea gara. Urritik ari gara euskara ikasten A1 mailan. Mundu osoko ikasleak gara, eta jolas bat prestatu dugu: asmatu gure hiria, hiriburua edo herrialdea.

1. 1982ko Literatura Nobel Saria herrialdekoa da.

Munduko kafe onena dugu.

___ L ___ B ___

2. Euskal Herrian Arantzazu dugu, nire herrialdean

Montserrat. Sant Jordi Eguna garrantzitsua da,
apirilaren 23a. Non dago Familia Sakratua?

___ R ___ L ___

3. Munduko unibertsitate zaharrena dago: FEZ
(859. urtea). Afrikako meskita handiena dago. Tea
mentarekin dugu etxe guztietan.

M ___ K ___

4. Illinoiseko hiri printzipala, nagusia da. Hiri haizetsua
da. Pizza sendoa da tipikoa: deep dish.

___ H ___ G ___

5. Nire herrialdean koba oso polita dago. Oso turistikoa
da. Kobak Kryvche du izena. Baina orain ez dago
turista asko herrialdean; orain, gerra dugu lau
urtean.

U ___ I ___

6. Herrialdea Afrika erdi-erdian dago. Okapia (animalia)
bizi da herrialdean. Oso aberatsa da, mineral asko
ditugu: urrea, zinka...

___ N G ___

7. Herrialdean "sopa" bizkotxo gazia da tipikoa. Gure
banderak bi armarri ditu, Hego Amerikan bakarra da.

P ___ U ___

1. (KOLONBIA)
2. (BARTZELONA)
3. (MAROKO)
4. (CHICAGO)
5. (UKRAINA)
6. (KONGO)
7. (PARAGUAI)

Sendabelarrak

Euskal Herriko lau sendabelar bilatu ditugu. Landare hauen ezaugarriak eta errezeta edo erremedioak jarri ditugu hemen, zuek etxean egiteko: ukendua, infusioa, kataplasma, enplastua eta xarabea.

Baina, erne! Gu ez gara medikuak eta hauek ez dira sendagai sinpleak, batzuk toxikoak dira edo arrisku-
tsuak haurdun bazaude. Kontuz ibili, eta begiratu informazio gehiago ezer egin aurretik.



SANTIO BELARRA

Milazuloa, asiki belarra
Hypericum Perforatum

Nolakoa da?

Bost petalo horiko lorea du.
30-90cm luze da.

Non dago?

Tontor eguzkitsuetan.
Sasi artean.
Basoetako argiguneetan.

Zertarako da ona?

Zaurietarako, erreduretarako, aknerako.
Depresioa eta antsitatea arintzeko.

Erne!

Fotosentikorra da, ez eman eguzkia hartu aurretik.

INFUSIOA

1. Bildu loreak eta belarrak.
2. Lehor itzazu.
3. Jarri pixka bat edalontzian eta bota ur beroa.
4. Utzi 5 bat minutuz estalita.





INTSUSA

Intsusa beltza, plausta, sabuka
Sambucus nigra

Nolakoa da?

Enbor gogorra du, zuhaitza da.
Lore txiki zuri usaintsuak, sortak ateratzen dira. Uda edo udaberrian loratzen da.
Fruitu beltz txikiak izaten ditu.

Non dago?

Baserrien inguruan.
Laku, ibai eta bide bazterretan.

Zertarako da ona?

Gripeetarako, hotzak kentzeko, gainera, diuretikoa da.
Erredurak eta zauriak sendatzeko.
Erreumak kentzeko.

Erne!

Haurdunaldian ez hartu.
Zuhaixka eta zuhaitza daude, oso antzekoak. Zuhaitze-
ko dena aprobeztatzen da, zuhaixka toxikoa da.

INTSUSA XARABEA

1. Jarri lapikoan: intsusa-mahatsak (kikara 1), kanela (adartxo bat), jengibre freskoa (pusketatxo bat) eta ura.
2. Irakiten duenean, jaitsi sua eta erdira murriztu arte eduki (30-40 minutu)
3. Utzi epeltzen, oso garrantzitsua da.
4. Zanpatu nahasketa eta iragazi eskuekin eta kotoizko zapi batekin.
5. Eztiarekin (kikara 1) nahastu, eta beirazko ontzi batean gorde.

Hartu egunean 1-4 koilarakada.





KALENDULA

Hilerri-lilia, ilena, aingeru lorea
Calendula officinalis

Nolakoa da?

Landare basatia da.
Lore laranja ditu, eta zutoina 20-55cm luze da.
Ia urte osoan loratzen da.
Loreak gaez itxi egiten dira eta egunez ireki.

Non dago?

Nafarroan, Araban eta Baxe-Nafarroan gehienbat.
Toki lehorrak eta ezpondak gustatzen zaizkio.

Zertarako da ona?

Muskuluetako minarentzat erabiltzen dira, azala lasaitzen eta kolpeak arintzen baititu.
Gainera, gorputzeko eta urdaileko erredurak sendatzeko balio du.

Erne!

Alergiak badituzu, edo haurdun bazaude, ez erabili.

KALENDULA UKENDUA

Olio egiteko:

1. Poto batean jarri eskukada bat lore lehor eta bota olio estali arte.
2. 30 egun pasatu eta gero, iragazi olio.
3. Urtu argizaria olioan maria bainuan (8g argizari 50ml olioko)
4. Ondo nahastu argizaria desegin arte.
5. Ontzi txikietan jarri eta utzi hozten

6-12 hilabete bitartean irauten du, giro-tenperaturan eta toki ilun batean gordez gero.





PASMO-BELARRA

Anagallis Arvensis

Nolakoa da?

Bost petalo laranja ditu, lore txikia du.
80 cm edo 1 m neurtzen du.

Non dago?

Euskal Herri osoan dago.
Landetan, baratzean eta bide ondoan egoten dira.

Zertarako da ona?

Haginetako mina eta eztarria sendatzeko balio du.
Infekzioak eta herpesak sendatzen laguntzen du.

Ernel!

Indartsua da. Ez edan, toxikoa da.
Azalean bakarrik erabili!


PASMO-BELAR KATAPLASMA eta ENPLASTUA

Kataplasma:

1. Zanpatu hosto freskoak eta tortilla bat egin (ez erabili arrautzarik!).
2. Jarri tortilla hori gorputzean.

Enplastua:

1. Zanpatu hosto freskoak.
2. Nahastu hosto horiek txerri gantzarekin. Baratzuria edo erromeroa ere gehitu, nahi baduzu.
3. Jarri enplastu hori gorputzean.



Euskaldunok ere badugu umorea!!!

Urtero bezala, Maizpideko ikasleok aldizkaria prestatzen aritu gara. Gure taldean, Elisabeth Mejuto eta Alex Rabanal bakarriketariei egin diegu elkarrizketa.

Haientzat zaletasuna da bakarriketak egitea, nork bere lana baitu. Beren trebetasun, gabezia, baliabide, beldur eta abarrei buruz hitz egin digute. Goza dezazuela elkarrizketaz!!!!



Aurkeztu zeure burua.

Eli. 39 urteko kazetaria naiz. Bartzelonan, Komunikazio Politikoan masterra egin nuen, baita gidoiak egiten ikasteko hiru ikastaro ere. Gaur egun, komunikazioan lan egiten dut, eta bakarriketak ere egiten ditut.

Alex. 55 urte ditut. Lanbidez igeltseroa naiz, eta afizioz bakarriketaria eta mendi eta errepide bizikletaria. Gaur egun, ebakuntza bat dela eta, ez dut igeltsero lan egiten. Ikasturte honetan, euskara berreskuratzen ari naiz Maizpiden. Eta nik ere bakarriketak egiten ditut.

Noiz eta nolatan hasi zineten bakarriketak egiten?

Alex. Duela 24 urte, igande batean, kasualitatez, "El club de la comedia" ikusi nuen. Hainbeste gustatu zitzaidan, horixe egin nahi nuela pentsatu nuen. Lagun eta lankideei nik sortutako bakarriketa txikiak kontatzen nizkien. Haiek esaten zidaten idatzi egin behar nituela, eta, horrela, bakarriketa bat idatzi eta Erretereriako lehiaketa batean eman nuen izena. Lauzpabosten arteko kanporaketa fasea gainditu eta finalera iritsi nintzen.

Eli. Betidanik gustatu zait umorea. Etxean txantxa giroa izan dugu beti, eta kuadrillan ere ni nintzen zirikatzaile bakarra, ni nintzen adarjotzailea. Nik ere *El club de la comedia* ikusten nuen, eta pentsatu nuen: "Txotxolo-

keriak eginda, besteei barre eraginda, dirua irabaz liteke? Bada, ni bromazalea naiz, sortzailea ere bai; beraz, hori egin nahi dut". Bartzelonan bizi nintzenean, gidoiak idazteko hiru ikastaro egin nituen, eta han bertan hasi nintzen, duela zortzi urte.

Nola gogoratzen duzue lehenengo emanaldia? Zer sentitu zenuten?

Eli. Komedia ikastaroa bukatutakoan, emakumea izateari buruzko bakarriketa prestatu nuen. Obsesionatuta nongoen testuarekin, eta, beraz, oso literala izan zen. Oso artifiziala izan zen, txiste gutxi sartu nituen. Gerora, denborarekin, ideia hartu eta neure erara moldatzen ikasi dut. Naturaltasuna eta konfiantza lortu ditut.

Alex. Gimnasia joateari buruzkoa izan zen: nola portatzen den jendea gimnasioan, nolakoak diren makinak... Ni oso urduri nongoen. Publikoa ona zen, eta barre asko egiten zuen. Txiste bat kontatzen nuenean, txaloka eta barrez hasten ziren; baina hain urduri nongoen, ez nien lasai txalo egiten uzten, eta segituan hasten nintzen hurrengo kontaketen.



Nola aukeratzen dituzue gaiak? Egunerokotasunetik aukeratzen dituzue? Benetakoak ala asmatutakoak dira?

Alex. Orain, familiari buruzkoak egiten ditut: semea nerabea da, emazteak eta biok urte asko daramatzagu elkarrekin...

Eli. Bai, kazetaria naizenez, askotan, albisteak hartu eta errematatu egiten ditut. Tira, batzuetan niri gertatutakoak ere baliatzen ditut.

Bakarrizketetan edozer esateak balio du? Badago muga moralik? Araurik, nahiz eta, agian, idatzirik ez izan?

Eli. Hemen, badago tabu pixka bat: umore beltza egitea, hemengo politikarekin umorea egitea zaila da. Gizartea oso sentibera da gai horiekin.

Alex. Bai, ados nago, baina garbi adierazi behar da umorea dela. Adibidez, *Vaya semanitak* lortu zuen egitea.

Bakarrizketa munduan matxismorik badago?

Alex. Egia esan, gizonak emakumeak baino gehiago dira umore munduan. Ni hasitakoan, neska oso gutxi zeuden; baina uste dut gero eta komiko gehiago ari direla bere lekua aurkitzen. Hala ere, oraindik denon artean gehiago egin behar dugu berdintasuna lortzeko.

Eli. Matxismoa egiturazkoa da. Komedian emakumeak beti egon dira; beste gauza bat da begiratu diguten ala ez.

Berezkoa bakarrik nahikoa da bakarrizketari izateko? Badago eskolarik? Badago teknikarik ofizioa ikasteko?

Eli. Bai, komedia eskolak badaude. Nik neuk ere, lehen esan dudan bezala, gidoiak egiteko ikastaroak egin nituen eta teknika batzuk irakatsi zizkidaten, adibidez, kolore horia eta hiruko erregela.

Alex. Ni hasi nintzenean, ez zegoen ikasteko eskolarik. Nork bere kasa egiten zuen. Tabernetan hasi nintzen. Behin, *Paramount Comedy* antolatu zuen lehiaketa batean parte hartu nuen, eta Espainiar estatuko guztien artean zortzi onenei ikastaro bat egiteko saria eman ziguten. Hala ere, zerbait komentatu nahi nuke: kome-



dia eskolak oso onak dira, baina bertatik pasatzen diren guztiak berdin irteten dira, patroï berekoak denak. Garrantzitsua da, ordea, bakarrizketari bakoitzak bere estiloa garatzea, bere ukitua izatea.

Nolakoa izan zen ikastaroko lehenengo klasea?

Eli. Lehenengo klasean, Gabriel Gómezekin, banan-banan atera aurrera, eta norberaren aurkezpena egin behar genuen, beti, grazia, txistea bilatuz; hau da, emozionalki mugiarazten zaituena kontatuz. Adibidez, nik behiei beldurra diedala kontatu nuen. Horrela, beste zerbaiti beldurra diotenekin kontaktatu nuen emozionalki.

Alex. Nik Ricardo Castellarekin egin nuen, oraingo *La revueltako* zuzendariarekin. Lehiaketan irabazitako ikastaroa izan zen. Lehenengo egunean, testu batzuk zeuden arbelean idatzita. Nire zatia irakurtzean, komedian dagoen hiruko erregela egin nuela esan zidan. Nik ez nekien zer zen, baina berez atera zitzaidan.

Zer hizkuntzatan egiten dituzue bakarrizketak?

Eli. Katalanez, gaztelaniaz, euskaraz eta, behin, ingelesez egin nuen; baina oso laburra.



Alex. Gaztelaniaz.

Euskaraz noizko, Alex?

Ikasturte amaierarako labur bat egiten saiatuko naiz.

Zeintzuk dira zuen indarguneak?

Alex. Publikoa entzuten dut eta, entzuleek espero ez dutela, erantzun egiten diet, beren elkarrizketan sartzen naiz.

Eli. Sormena eta "errematatze" gaitasuna. Burugogorra naiz, eta bukaeraraino joaten naiz.

Noizbait ahaztu zaizue testu zatiren bat? Zer egiten duzue horrelakoetan?

Alex. Bai, askotan. Horrelakoetan, publikoari galdetzen diot, ea erne dauden jakiteko. Kar, kar, kar.

Eli. Bai, askotan; eta, egia esan, neure burua nabarmen uzten dut: testua hartu eta non nindoan jakiteko, irakurri egiten dut. Naturaltasunez jokutzen dut.

• **Bakarrizketari bat:**

Alex. JJ Vaquero

Eli. Yunez Chaib

• **Inspirazioa:**

Alex. Nire bizitza, familia

Eli. Bizitza, aldizkariak

• **Eszenatoki bat:**

Alex. Jada itxita dagoen Donostiako Staff taberna

Eli. Bartzelonako El Medi

• **Film bat:**

Alex. *Aterrizo como puedas*

Eli. *Por si la cosa funciona*

• **Oporretarako leku bat:**

Alex. Oropesa

Eli. Ikaztegietak



JOSU ZUBIAri elkarritzeta

Josu Zubia, "Potx" izen artistikoz ezagunagoa den oñatiarra, elkarritzetatu dugu. Irakaslea izateaz gain, pailazoa ere bada, aspal-ditik dabil haur eta gazteekin lanean, bai hezkuntzan, bai oholtza gainean. Bere aita Maizpide euskaltegiko ikaslea denez, harreman horri esker Josurekin solasean aritzeko aukera izan dugu.

1. Euskal Herrian tradizio handia dago pailazoeekin. Zergatik dela uste duzu? Eta nortzuk dira zure erreferenteak?

Bai, egia da Euskal Herrian tradizio handia dagoela pailazoen inguruan. Ez da kasualitatea, nahiz eta historikoki ez den hain luzea. Duela hamarkada batzuk, Euskal Herriko egoera soziopolitikoa oso nahasia zen, eta horri erantzuteko, modu informalean baina eraginkorrean, haurrentzako zerbait sortzeko beharra sentitu zen.

Gogoan ditut, besteak beste, Takolo, Pirritx eta Porrotx (hasieran Pirrux ere bazena), Lasarte-Oriako irakasle talde batetik sortuak. Haurrentzako zerbait egiteko elkar-tu ziren. Hor dira Txirri, Mirri eta Txiribiton ere; lehenago Kixki, Mixki eta Kaskamelon izan zirenak. Donostialdean, Kresala elkartearen laguntzarekin, haurrentzako ikuskizunak sortu zituzten. Gainera, Mirri txistulari eza-guna da, eta hainbat doinu tradizional berrinterpretatu zituen hurrei eskaintzeko.

Horiek guztiak nire erreferenteak izan dira pailazo mun-duan Euskal Herrian.

2. Noiz eta zergatik erabaki zenuen pailazoa izatea? Ikas-keta berezirik behar al da?

Ez zen erabaki kontziente bat izan. Euskararen Egunean zerbait antolatu behar genuen, pailazoak ekarri nahi ge-nituen, baina ez genuen pailazorik. Orduan, "nork egin du?" galderari nik erantzun nion. Horrela hasi zen guztia, kasualitatez.

Gero, pixkanaka, garatzen joan gara. 2015ean Itziazarekin batera, "Lotx" izenez ezagutzen den artistarekin, Oñati-ko Antzerkigunea sortu genuen. Herriko haur eta hel-duekin antzerkiaren inguruko hainbat kontu ikasi eta landu genituen. Hortik sortu zitzaigun klaunaren mun-



duarekiko interesa. Valentziara, Bartzelonara eta Gastei-zera joan izan gara clown teknikak ikastera. Ikasitakoa *Potx eta Lotx* proiektuan jarri dugu praktikan.

3. Nahiago duzu telebistan edo sare sozialetan agertu, ala herriko plazan antzeztu?

Zalantzarik gabe, herriko plazan. Pailazoaren zentzua eta izateko arrazoia publikoa da, unean-unean eran-tzuten duen publikoa. Etengabeko feedback-a dago: barrea, isiltasuna, deserosotasuna. Pailazoak hori pro-bokatu egiten du, eta erreakzio horietatik elikatzen da. Kode konplexua da; publiko adi eta irekia behar du. Umoreak funtzionatzeko, entzuleak prest egon behar du. Sare sozialak eta telebista ere erabiltzen ditugu, eta gustura egiten dugu, proiektuari jarraipena ematen diolako. Agian Lazkaon bi edo hiru urtean behin egon-go gara, baina telebistaren bidez astero egon gaitzeko jendearen etxean. Hala ere, gehien gustatzen zaiguna zuzeneko harremana da.

4. Zer da pailazoa izatearen gauzarik zailena?

Zailena da barrutik sortzen zaizuna ateratzen uztea. Pai-lazoa figura kulturalki deserosoa da, eta horrexegatik in-fantilizatu izan da askotan. Baina publikoak ez du barre egiten pailazoak tontakeriak egiten dituelako; barre egi-ten du pailazoak erakusten digulako zein tontoak garen. Plazan muga horiek topatzea zaila da. Ni muga horiek esploratzearen aldekoa naiz, baina beti kontuan hartu behar dira publikoa eta testuingurua. Edozein lekutan ezin da edozer esan.

5. Potxek aukera ematen al dizu Josu gisa salatuko ez zenituzkeen egoerak salatzeko?

Bai. Pailazoak ematen duen "baimen" horrek filtrorik gabe hitz egiteko aukera ematen du. "Potxolo" itxura dugunez, jendeak ez du hain gaizki hartzen. Horrek aukera ematen digu gauzak esateko.

Behin, Oñatin egindako aurkezpen batean, liburuzain bati buruzko txantxa egin genuen: beti oso serio dagoe-la. Inork ez dio hori zuzenean esaten, baina denok dakigu. Jendeak barre egin zuen, egia partekatua baitzen. Horrelakoak beste gai sozial konplexuagoetara ere eraman daitezke. Umoreak osatzeko, zauriak ixteko ahalmena du.

6. Josu eta Potx desberdinak al dira?

Desberdinak dira, baina lotuta daude. Potx nire pertsonaren luzapen bat da, baina maskarak kontrako efektua dauka: jarri, eta dena anplifikatzen da. Heldu bihurtzean geure buruari jartzen dizkiogun muga eta itxiturak askatzen ditu pailazoak.

Azken batean, Josuren erreakzioak dira Potxenak, baina profil desberdinak dira: pertsona eta pailazoa. Bi alde, gorputz berean.


7. Zergatik dira zure lanak euskaraz?

Ezin da bestela izan. Gure inguruko errealitateari erantzuten diogu, eta gure hizkuntza euskara da. Horrek ez du esan nahi mugatzailea denik; hizkuntza guztiak dira nazioartekoak. Ulertu nahi duenak ikasi egin behar du. Gaztelaniaz egiteko proposamenak jaso ditugu, baina ez dator bat gure ikuspegiarekin. Gure lana gure komunitatearentzat da.

8. Zer iruditzen zaizu zure aita euskara ikasten hastea?

Oso pozik nago aita hartu duen erabakiarekin. Uste dut, aita bezala, beste jende askok ez duela guztiz ulertzen zein lurraldetan bizi den. Lurralde bat ondo ulertzeko, bertako kode guztiak ulertu behar dira, eta hizkuntza da nagusietako bat. Hizkuntzak gure inguruaren argazki osoa ematen digu. Bestela, azaleko ulermena baino ez dago.

Hizkuntza batek beti eramaten gaitu beste pertsona batengana. Benetako esperientzia hizkuntza hori besteekin partekatzen dugunean gertatzen da.



GALDERA LABURRAK

Zein da zure osagarririk gustukoena?

Sudurra.

Nola sentitzen zara erosoan, sudurrarekin ala sudurrik gabe?

Sudurrarekin, baina ñabardurak daude.

Musikaria, pailazoa, irakaslea ala magoa?

Zaila da; agian magoa esango nuke, baina pailazoa edo musikaria ere bai.

Zure lanen artean zein da bereziena?

Oraindik egin ez dugun lan bat. Gai konplexua da, heriotza perinatalaren ingurukoa, Esku Hutsik elkararekin batera lantzen ari garena. Umorea eta heriotza uztartzea erronka handia izango da, baina oso berezia.



KALE INKESTA LAZKAON

Otsaileko egun eguzkitsu bezain hotz batean kalera atera eta herrian zehar ibili gara taldetxotan herritarrek Maizpideri buruz duten iritzia jasotzeko asmoz. Batzuetan labur, beste batzuetan luzeago, hona hemen bildutako erantzunak. Eskerrik asko inkestan parte hartu duzuen guztioi zuen borondate ona erakusteagatik.

1.
EZAGUTZEN DUZU MAIZPIDE?
2.
ZERGATIK EZAGUTZEN DUZU?
3.
ZER IRUDITZEN ZAIZU EGITEN DUEN LANA?
4.
ZER ESKATUKO ZENIOKE HEMENDIK AURRERA?



Joxepi

1. Bai.
2. Maizpide oso ondo ezagutzen dut, euskararen alde lan handia egiten baitu. Askok gustatzen zait zuen lana.
3. Nahiz eta ni Lazkaokoa ez izan, oso ondo hitz egiten didate Maizpideri buruz eta langile batzuk ezagutzen ditut. Adibidez, Iñigo irakaslea ezagutzen dut eta bere ama ere bai, pertsona izugarriak dira.
4. Horrela segitzea.

Joxe Anjel “Txispas”

1. Bai horixe.
2. Betidanik ezagutzen dut Maizpide, hemen jaio bainintzen. Gainera, Dionisio Amundarain (Euskaltegiko lehen zuzendaria) ezagutzen dut eta bere anaia nire irakaslea ere izan zen beneditarren komentuan.
3. Oso ondo dago, jende asko ekarri baitu herrira; adibidez, taberna mailan asko nabaritzen da ikasleen presentzia.
4. Nik uste dut ona dela Maizpideren lana herriarentzat. Jende asko etortzen da, eta lehen askoz gehiago, batez ere, Araba aldetik, han oso jende gutxik zekien euskaraz eta.

Maika

1. Bai.
2. Maizpide nire lehengusua bertan euskara ikasten ari delako ezagutzen dut.
3. Maizpidek egiten duen lana biziki ongi dago. Euskara sustatzen du, eta azkenean adin desberdinetako jendea joaten da bertara ikastera.
4. Horrela jarraitzea. Garrantzitsua da jendea motibatuz Euskal Herriko txoko guztietara hizkuntza hedatzea.



Lazkao

Silvia

1. Bai
2. Txikitatik ezagutzen dut Maizpide. Herriko erreferenteetako bat da, Gipuzkoan nahiko ezaguna da. Badakit Maizpidera jendea etortzen dela, eta bertan oso gustura ibiltzen direla. Txikitan behin hara joan nintzen dantzatzera. Oso bitxia iruditu zitzaidan.
3. Maizpidek hainbat elkarterekin egiten du lan, oso integratuta dago herrian eta lan garrantzitsua egiten du. Inguruan leku asko daude euskara ikasteko, baina Maizpide erreferente da.
4. Uste dut Maizpide eredu dela, adibidez mintzalagunak nola zaintzen dituen. Mintzalagun proiektuak indar handia ematen dio euskaltegiari eta harremanak estutzen ditu herritarrekin. Horregatik, lanean jarraitzeko eta jendea euskaraz egitera animatzeko eskatuko nioke.



Lazkao

Oihane

1. Bai, noski, ezagutzen dut.
2. Lazkao bertan dagoelako eta, horretaz aparte, langile askori entzun diet kanpotarrak direnak hona etorri direla euskara ikastera.
3. Oso ondo iruditzen zait egiten duten lana, jendeari euskara irakastea. Gure kulturaren alde egiten dutena oso garrantzitsua eta beharrezkoa iruditzen zait.
4. Dagoeneko egiten dutenaz aparte, ezer gutxi. Nik uste herritarrekin harreman handia duzuela; beraz, horrela jarraitzea nahi nuke. Aurten pentsatzen dut kilometroetan zerbait egiteko asmoa edukiko duzuela, ezta? Hori espero dut.

Mari Anjeles

1. Bai, herrikoa delako.
2. Ni ez naiz behin ere egon Maizpiden, baina hango irakasleak ezagutzen ditut, batzuk nire herrikoak baitira.
3. Oso ondo, arrazoi askorengatik. Lehenengo, euskara erakusten delako, eta hori oso garrantzitsua da, egunetik egunera garrantzitsuagoa. Bestalde, herriari bizia ematen diolako. Zuek hemen egoteak herritarroi eta jubilatuoiei poza ematen digu.
4. Ez daukat ideiarik ere. Hori ezin dut esan, ez baitut ezagutzen. Beti gauza onak entzun izan ditut: Zuek orain hemen zaudeten ikasleok, baina beste askok hemendik pasatu eta gero zera esaten zuten: "Jo, bai, Maizpiden ikasi nuen eta primeran ibili nintzen... Bata japoniar sukaldaria, bestea amerikarra edo halako tokikoa...". Horrek ere Maizpideri indarra ematen dio eta uste dut herriak zaindu behar lukeela. Ez dut esaten egiten ez duenik, baina zaindu beharreko altxor bat dela argi daukat. Lehenik euskara aldetik, ze aurrera joan beharrean atzeraka goaz eta hori triste samarra da. Eta gero, beste alde batetik, lehen esan dudana bezala, herriari ematen dion poza handiagatik.



Ataun

Ana

1. Bai
2. Ni hemen bizi naizenez, erraza da ezagutzea.
3. Primeran! Ni han ikasten oso gustura aritu nintzen. Lan gogorra da, baina oso pozik egon nintzen. Irakasleak ezagutzen ditut: Jon, zuzendaria izan zena, Nekane eta Pakea, besteak beste.
4. Ni ia dena ikasita atera nintzen handik, lehen euskara pixka bat banekien, baina Maizpiden ibili eta gero EGA atera nuen. Horregatik, oso gustura nago.



Beasain



Iñigo eta Javier

Antzuola



Beasain

Iñigo

1. Bai
2. Bueno, batez ere, hemen euskaltegia badela jakin badakigu. Bertara euskalduntzera etortzen direla leku askotatik.
3. Nire ustez, euskararen aldeko lana oso txalogarria da; eta, gainera, gurea bezalako hizkuntza gutxitu baterako oso mesedegarria.
4. Maizpideri bere horretan jarraitzeko eskatuko nioke, egiten ari den lanari jarraipena emateko eta, ahal den neurrian behintzat, Euskal Herri osora zabaltzeko.

Patxi

1. Bai
2. Ezagutzen dut, Beasaingoa naiz, baina hemen nabil lanean, sukaldaritza irakasle. Barnetegia dela badakit.
3. Oso garrantzitsua da hemengoentzat eta beste herritarrentzat; izan ere, ez dakitenek aukera daukate hemen gure hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko.
4. Ez dakit, egia esan, zer gehiago egin dezakeen.

Aloña

1. Bai, noski. Hemen denek ezagutzen dute Maizpide, Lazkaon behintzat bai, eta Goierri ere bai.
2. Ni Lazkaoko kiroldegian nago, harrerako langilea naiz eta Maizpidetik ikasle asko etortzen dira hona. Hilabeteko lehenengo egunetan, arratsalde gaudenean, badakigu Maizpideko norbait etorriko dela informazio eske. Batzuk kirola egitera etorriko dira, beste batzuk ez. Normala da egun osoa eserita pasatu ondoren, buruari eman eta eman, hemen gorputzari astindu bat eman nahi izatea. Bestalde, kalean giroa sortzen da, eta Lazkao mapan kokatzen du.
3. Maizpide egiten duen lana izugarria da, ikusi besterik ez dago zenbat denbora daramazuen hemen eta zein ondo hitz egiten duzuen. Oso pozgarria da. Maizpidetik norbait etortzen denean ni saiatzen naiz, ahal den neurrian, motelago hitz egiten edo ahoskera...normalean hitzak jan egiten ditugu eta.
4. Ez dakit, ez zait ezer bururatzen, kalean ekintzak egiten dituzue eta asko ikusten dugu zuen parte hartzea, kantu jiran goizetan edo karro-pote horretan eta ez dakit, nik ikusten zaituztet... Herriarrekin beste ekintzaren bat ez zait bururatzen oraintxe.



Zegama

Juan Mari

1. Bai, Maizpide hasieratik ezagutzen dut. Maizpide aurrean lehen baserri bat izan zen, Maizpi izenekoa (Bixenta zen etxeoandrea), eta gero euskaltegia sortu zen han. Jendea euskara ikastera etortzen zen. Ni hiru urterekin etorri nintzen Lazkaora.
2. Meatzaria izan nintzen, burdinarekin lan egiten nuen. Gainera, Maizpideko burdin sareak eta forja guztiak egin nituen, izan ere, burdindegia neukan.
3. Iruditzen zait Maizpideren proiektua oso polita dela; izan ere, euskara ikastea oso interesgarria eta garrantzitsua da.
4. Lanean fin segitzeko eta euskarari eusteko eskatuko nioke Maizpideri.



Juan Mari eta Julia

Lazkao



NOLAKO IKASLEA ZARA?

1) Zenbat liburu irakurri dituzu euskaraz ikastaroan zehar?

- a) Bat ere ez
- b) Bat edo gehiago
- c) Liburu erdia

2) Zer egiten duzu denbora librean?

- a) Pote bat hartu
- b) Ikasi
- c) Ez dakit, eguna zein den

3) Zer edaten duzu gehien jangelan?

- a) Arno beltza, bazkari eta afariei bultza egiteko
- b) Laranja zukua, klasea hasi baino lehen indarra hartzeko
- c) Etxetik termotan ekartzen dudana infusioa



4) Zer ordutan esnatzen zara?

- a) 8:55ean bestondoagatik
- b) 7:00etan egunero, liburutegira joateko
- c) Iratzargailua hautsi zen urrian, beraz eguzkiak esnatzen nauenean

5) Zein lekutan eta nola ikasten duzu euskara?

- a) Albokan, goizeko hiruretan, mintzapraktika eginda
- b) Ikasgelan, idazlanak eginda
- c) Oihanean, Euskal Herriko sustraiak hobe sentitzen ditudalako

6) Zein logelakide nahiagoko zenuke?

- a) Parrandazalaren bat
- b) Irakasleren bat
- c) Urrats altuko ikasleren bat

7) Kontzertua dago Lazkaoko plazan, baina bihar Maizpiden azterketa duzu, zer egingo zenuke?

- a) Kontzertura joango naiz, noski
- b) Maizpiden geratuko naiz ikasten
- c) Beasaina joango naiz paseo bat ematera eta herria ezagutzera

8) Afaldu ondoren lagunek musean egitea proposatu dizute, zer egingo zenuke?

- a) Trago batzuk hartuz, tabernan egingo nuke
- b) Nahiago dut klasean geratu gaiak errepasatzen
- c) Kiroldegira joango nintzateke

A » puntu 1 / B » 2 puntu / C » 3 puntu

8-13 puntu » Ikasle parrandazalea

Txotx! Maizpidetako gautxoria zara. Zu Lazkaoko auzapeza baino ezagunagoa zara. Mintzamina egunero praktikatzen duzu tabernan, batez ere ostegunetan. Ostegunero bekatu berri bat aitortzen diozu gauzainari, eta zure biografia idatz dezake ziurrenik.

Murgil zaitetz zure ikasketetan eta eman iezaiozu gibelari atsedentxo bat!

14-19 puntu » Ikasle fina

Zorionak! Maizpidetako ikasle onenetako bat zara, eta horrekin batera, irakasleen ikasle kuttunaren titulua lortu duzu. Horri eusteko, 8:45ean klasean eserita egoten zara, aurreko eguneko unitatea errepasatzen. Besteei ez bezala, etxerako lanak gustatzen zaizkizu. Gainera, zure egunerokoa irakasleari ematen diozu, zuzentzeko. Urte batzuk barru, ziur aski, irakaslea izango zara, baina orain ez ahaztu gozatzea!

20-24 puntu » Ikasle despistatua

Ongi etorri! Zeu zara gure despistatu berria. Ziur gaude ez dakizula non dagoen zure telefonoa, ezta zeure burua ere, baina beti pozik ibiltzen zara! Askotan klasean zure txanda izaten da, baina ez zara konturatzen; edo baietz erantzuten duzu, eta ez dakizu zeri buruz ari diren hizketan. Azkenean ondo egiten duzu eta zutaz harro gaude! Horrela jarraitzea espero dugu, baina, mesedez, etorri goizago klasera!



BIZIOLA. BIZITZAREN FABRIKA.

Biziola 2020-2021 artean sortu zen. Garai hartan bi lagun elkartu ziren, eta 40 bazkiderekin hasi zuten proiektua. Lau urteren buruan, hau da, gaur, 500 bazkide izatera iritsi dira Goierriko ekonomia bultzatzeko zein kontsumitzeko garaian nork bere buruaren jabe izateko helburuarekin. Hara hurbildu gara proiektu erakargarri honen berri izan nahian.

Sartu orduko ikusten den guztia auzolanean eginda dago: mostradoreak, kartelak, altzariak, dekorazioa, argiteria ... bertako filosofien erakusgarri garbia.

Gure buruan Biziola elikagai-denda da. Hala ere, ez da hori bakarrik; izan ere, elkarrizketa honi esker asko ikasi dugu eta segidan azalduko dizuegu Biziola ez dela produktu ekologikoen eta bertakoen denda bakarrik.

Biziola bertako elikagaiak saltzeaz gain, beste arlo batzuetan ere aritzen da. Hauxek aurten martxan jarri dituztenak: bigarren eskuko arropak saltzen dituzte, eta garagardo artisaua ekoizten ari dira han bertan. Beste proiektu batzuk ere badituzte: kultura, etxebizitza edo zaharren zaintza; energia jasangarria ere garatzen ari dira. Bestalde, goiko solairua prestatu nahi dute beste kooperatiba txiki batzuek bulego bat edukitzeko.

Hasi zenetik argi daukate beren lan-filosofia: makro-industria edo makro-baserrii aurre egitea. Alegia, 1000 behiko makro-baserri baten ordez, 10 behiko 100 baserri nahiago dute. Filosofia horrekin elikagaiek bertakoak izan behar dute, nekazariak erabat ezagunak izan behar dute, eta harremanak zuzenak (esaterako, arrautzak Zumarragakoak; txerri haragia, eztia edo gazta Goierri ingurukoak). Eta, noski, beti garaian garaiko produktuak. Baina beti ezin da, eta, ondorioz, Goierri ez dauden produktuak lehendabizi Euskal Herritik ekartzen saiatzen dira. Eta hori posible ez denean Espainiako estatutik: zitrikoak Vinarozetik;





sagarra Kataluniatik; dilistak Zaragozatik eta platanoak Kanariar uharteetatik; baina urrunagotik ezer ez, 3 hauek salbu: txokolatea, kafea (Chiapasetik), eta tea (Nepaletik). Dena den, argi eta garbi daukate non eta nola erosten duten eta zein lan-baldintza bete behar dituzten ekoizleek. Hortaz, baldintza horiek betetzen ez badituzte, ez diete produktu-rik erosten.

Energiari dagokionez, Goierriko beste kooperatiba batekin harremanak dituzte, eta helburua Goierri energia berdez hornitzea da. Horretarako, bazkideak animatu nahi dituzte eguzki-plakak jartzera. Horrela, etxean kontsumitzen duten energia nondik datorren eta nola sortzen den jakingo dute. Gainera, helburua proiektua zabaltzea da, inguruko zerbitzu publikoei ere hornidura eman ahal izateko.

Gure ohiko bizimoduan, beti denbora faltan ibiltzen gara, eta supermerkatuetara joaten gara. Ia begiratu gabe egiten ditugu gure erosketak, ez dakigu non dauden eginda, nola... eta produktuen etiketan jartzen dutena sinetsi behar dugu.

Horren aurrean, Biziolan, produktu osasungarriak erosteko aukera ederra ematen digute. Inguruko nekazariak direnez, badakigu nondik datozen produktuak, nola dauden ordainduta. Eta ekologikoak direla ere argi eta garbi dago. Gure ekonomiaren jabe izan nahi badugu, horrelako kooperatibetan edo dendetan erosi behar dugu. Biziolak ematen digu aukera hori.

Gure esku dago erabakitzea zer produktu kontsumitu edo jan behar dugun; produktu horiek nondik etorri behar duten edo nolakoak izan behar duten ekoizleen baldintzek; nork bere buruari galdetu behar dio hori jakitea garrantzitsua den ala ez. Eta horren haritik jokatu!



OSAKIDETZAKo KOLOREAK

Zenbat aldiz joan zara ospitalera? Ziur aski behin baino gehiagotan. Orduan, ikusiko zenuten ospitaleko langile guztiek ez dutela kolore bereko arropa jantzen. Ziurrenik ez dakizu zein den kolore bakoitzaren esanahia, baina egon lasai, guk azalduko dizugu; dirudien baino errazagoa da.

Larrialdietatik ospitalera sartzen zarenean, mostradore baten atzean lehenengo ikusiko dituzunak bata zuri-dunak izango dira. Administratiboak dira, zure datuak hartuko dituzte eta eskumuturrekoa jarriko dizute, zu identifikatzeko.

Bigarren urratsa triajera joatea izango da. Han urdinez jantzitakoak daude zure zain. Erizainak dira, lehen filtroa; haiek zure konstanteak hartuko dituzte, eta, horren ondoren, zenbat eta lehentasun handiagoa izan, hainbat eta gutxiago itxaron beharko duzu.

Zure txanda denean, grisez jantzitako bat etorriko da zure bila. Zeladorea da, eta berak eramango zaitu leku batetik bestera ospitalean.

Kasik ziur, diagnostikoa egin ahal izateko probak egitera eramango zaitu, adibidez, erradiografia, eta hor ikusiko dituzu uniforme moredunak. Teknikari espezialistak dira eta hainbat proba egin diezazkizukete. Morez jantzitako beste batzuk ere badaude, baina ez ditugu ikusiko, laborategian lan egiten dute eta.

Hori guztia egin eta gero, box batera pasatuko zara, eta arropa arrosa duen beste bat ikusiko duzu. TCAEa da; arroparekin lagunduko dizu, tenperatura hartu eta, besteak beste, eroso zaudela ziurtatuko du.

Geroxeago, zurietako bat sartuko da boxean. Medikua da, zurekin hitz egingo du, esplorazio bat egingo dizu eta zure kasuarekin zer egin erabakiko du: proba gehiago egin, beste eremu batera bidali... Kasu bakoitzak bere prozesua dauka.



Kolore asko direla iruditu zaizu, ezta? Bada, utz iezaguzu esaten, hauetaz gain kolore bat falta dela: berdea. Kolore hau gutxitan ikusten da, ebakuntza-gelan bakarrik erabiltzen baitute. Hor barruan ez dago desberdintasunik profesionalen artean, denak berdeak dira. Zirujauak, zeladoreak, anestesistak, TCAEak, teknikari espezialistak eta erizainak; gure ikaskide Marta bezala.





Marta Zumarragako ospitaleko ebakuntza-gelako erizaina da, eta azalduko digu nolakoa den hor lan egitea:

Kaixo Marta, zenbat denbora daramazu kirurgiako erizain lanean?

Kaixo! Hogeitaz hamar urte daramatzat!

Zumarragako ospitalea izan zen zure lehen lantokia?

Ez, ni Madrilgoa naiz eta han hasi nintzen lanean, unibertsitate-ikasketak amaitu eta gero.

Beti egin duzu lan ebakuntza-gelan?

Ez, hainbat zerbitzutan egin dut lan, baina nire lehenengo udan hor lan egin nuenez eta zerbitzu berezia denez, errazagoa izan zen Euskal Herrira etorri nintzenean zerbitzu honetan berriro lan egitea.

Zenbat erizain egoten zarete operazio-gela batean?

Bi erizainek egiten dugu lan bertan: bata “instrumentista” da, eta zirujauari laguntzen die material esterilarekin; bestea “zirkulatzailea” da eta anestesistari medikazioarekin laguntzen dio, baita instrumentistari ere, kanpotik behar duena ematen.

Nolakoa da egun bat zure lanean?

Operazio-gelara iritsi bezain laster, programazioa konprobatzen dugu eta materiala eta aparatuak errepasatzen ditugu. Kanpoan, pazientearen datuak egiaztatzen ditugu eta berarekin pixka bat hitz egiten dugu.

Ebakuntza egin bitartean, ezinbestekoa da komunikazio ona izatea, denok elkarrekin lan egiten dugu eta. Operazioa bukatu eta gero, pazienteak esnatzen denean, esnatze-gelara (URPAr) joaten gara berarekin. Han, beste lankide batzuek zaintzak egiten jarraituko dute.

Zein da erizain izatetik gehien gustatzen zaizuna?

Pazienteekin ditudan harremanak. Ospitalea ez da aisialdirako lekua, eta ebakuntzena zerbitzu ezezaguna da. Pazienteak kezkatuta egoten dira, batez ere, anestesiarekin. Prozesua azaltzea eta lasaitzea gustatzen zait, eta ahal dudan guztietan eskutik heltzen diet lotan dauden bitartean.

Eta gutxienez?

Egiten duen hotza. Mikro-organismoak asko gustatzen zaie beroa, eta operazio-gelan ez gara haien “fanak”.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkizugu zure denboragatik. Espero dugu berriro elkar ikustea, baina lantokitik kanpo. Kontuz xomorroekin!



MINTZA- LAGUNTZAILEEKIN ZORRETAN

Maizpideko ikasleontzat Mintzalagunak ekimena zein garrantzitsua den kontuan izanda, erreportaje hau egin nahi izan dugu, esker onez. Joxepa Madariaga Gerriko Kultur Elkarteko dinamizatzaileak gogorarazi digu 2005ean egin zela ekimen honen lehen probaldia, nahiz eta 80ko hamarkadan ere aurrekariak badiren. Lazkaokoa berezia dela aipatu digu, Maizpidek ematen diola berezitasun hori. "Hilero 15-20 talde izaten ditugu, bakoitzean batez beste hiru kide, astean behin elkartu eta ordubetez mintzapraktika egiten dute". Mintzalagunaren inguruan antolatzen diren ekintza osagarriak ere (solasaldiak, musika-emanaldiak, pintxo-poteak...) garrantzia eman die Joxepak. Guk bost mintza-laguntzailerik azpiko galderak egin dizkiegu.

- 1. Nola eta noiztik ezagutzen duzu ekimen hau?**
- 2. Zer ematen dizu mintzalaguna izateak?**
- 3. Zein ohitura daukazu zure mintzalagunekin?**
- 4. Zein da zure harremana euskararekin?**
- 5. Konta diezagukezu pasadizo aipagarri bat?**
- 6. Nola baloratuko zenuke ekimena?**

Peio Begiristain Begiristain

1. Jubilatu ondoren, Maritxu ezagutzen nuen, eta proposatu zidan mintzalaguna izatea. Nik lotsarik ez daukat, eta jende berria ezagutzea gustatzen zait. Hartan hasi ginen eta orain arte. Lauzpabost urte daramatzat ia.
2. Nahiko pertsona irekia naizenez, gustatu izan zait beste leku batzuetako pertsonak ezagutzea, eta pozgarria iruditzen zait.
3. Normalean, mintzalagunek nahi duten ordutegian egiten dugu. Pintxo-potea egin izan dugu edo Lazkao ezagutarazten diot jendeari.
4. Ikasketak dena erdaraz egin nituen, zoriturrez. Garai hartan, Francorekin, ez zegoen beste aukerarik. Arazoak izan nituen ikasgaiak gaztelaniaz ikasteko, eta gaizki pasatu nuen. Gurasoekin, lagunekin, emaztearekin eta umearekin, etxean eta lagunekin, dena euskaraz egin izan dut. Gero, lantokian ere hasi ginenean, ekintza bat sortu zen. CAFen jende asko zegoen euskara ez zekiena. Taldeak sortu ziren. Enpresak erdia ordaintzen zuen eta beste erdia langileok.
5. Pasadizo asko. Adibidez, jendea azkenean elkartera eramaten duzu. Eta, adibidez, Ja-



poniako Takarekin eta Ibairekin harreman ona egin nuen. Bi aldiz joan ziren elkartera, oso gustura eta pixka bat harrituta.

6. Zuen kasuan, arazoa da zuek soltatzea. Euskara pixka bat kostatzen zaizue, eta lagungarri izatea ona da, kanpoko jendearekin beldurrik ez edukitzeko, eta nahiz eta hanka sartu, euskaraz hitz egiteko.

Mila Insausti Mendizabal

1. Orain dela bost urte hasi nintzen. Lagun batek animatu ninduen. Pentsatzen nuen euskara batuan edo eskolako euskararen egin beharko zela, baina gero ezetz esan zidan. Hasi nintzen eta hemen jarraitzen dut.

2. Alaitasuna eta poza ematen dit, ikusita nola ikasten duzuen, nola joaten zareten zuen maila hobetzen. Konturatzen naiz eboluzioaz. Agian konfiantza hartzen dugu, eta konfiantza horrek zuek errazago hitz egitea lortzen du.

3. Eguraldi ona bada, paseotxo txiki bat egiten dugu, eta Lazkaoko txoko bereziak erakusten dizkiet, eta eguraldi txarra egiten badu, kafetxo bat hartzen dugu taberna batean.

4. Etxean beti euskaraz egin dugu; eskolan, berriz, ez, debekatuta baitzegoen. Kanean ere gehiena euskaraz. Gero, kanpoko jendea etorri zenean, Andaluziakoak, Extremadurakoak... eragina izan zuen. Gaur egun, lagunekin euskaraz egiten dut.



5. Neska batena gogoan dut. Ostegunean oso ondo erabiltzen zuen euskara, bai Maizpiden, bai Mintzalgunean. Ailegatzen zen asteburua, eta lehengusuekin egun pare bat erdaraz pasatzen bazituen, astelehenean berriro baxualdiarekin etortzen zen.

6. Aberastasuna da denontzat. Nik lagundu egiten diot ikasten ari den bati, eta lagun berriak egin ditut. Harremnari, mintza-laguntza bukatu ondoren ere, eusten diot.



Mari Karmen Iztueta Jauregi

1. Euskara klaseetan, alfabetatzen, aspalditik nabil, baina, Mintzalgunean, hau izango da hirugarren edo lauugarren ikasturtea, nahiz eta lehendik ezagutzen nuen.

2. Mintzalgun izateak harrotasun puntu bat ematen dit, harrokeria ez, e! Batetik, uste dut euskarari ekarpen xume bat egiten ari naizela. Bestetik, zuek ahalegin handia egiten ari zarete. Gainera, oso atsegina zait jende berriarekin egotea.

3. Ez daukat ohitura berezirik. Niri esan zidaten hasi nintzenean, nik izan behar nuela zuei mintzatzen lagunduko nizuena. Orduan, nire egitekoa da zuek bultzatzea hitz egin dezazuen.

4. Ni jaiotzez euskalduna naiz, baina urte haiek nahiko gogorrak ziren hizkuntzarentzat eta euskaldunentzat. Euskara etxe barruan hitz egiten genuen, eta etxetik kanpo erdara zen gure hizkuntza. Idaztearena berandu etorri zen, klasean erdaraz egiten genuen eta. 60ko hamarkadan apaiz batek euskarari bultzada handia eman zion. Elizako dotrina eta antzerkiak euskaraz egiten hasi zen.



5. Lehengo egunean liburu-dendaren atarian egin genuen hitzordua, baina ez ziren azaltzen eta Maizpidera deitu nuen, eta megafoniatik deitu zituzten. Azaldu zirenean, kontatu zidaten lehen hortik pasatu zirela, baina pentsatu zutela ni ez nintzela beren mintzalaguna.

6. Ondo baloratzen dut, baina agian galdera hau zuei egin behar zaizue, ekarpenik egiten dizuen edo merezi duen.

Karmele Auzmendi Lasa

1. Hasi zenetik. Nire lankide bat jada bertan ari zen, eta berak esanda ezagutzen dut.

2. Oso aberatsa iruditzen zait. Jende askorekin aritu naiz eta denek eman didate zerbait, asko ikasi dut beraiekin, eta oso une goxoak eta politak pasa izan ditugu elkarrekin.

3. Hasieran, herria erakusten diet, eta gero paseotxoak egiten ditugu, dena eguraldiaren arabera. Euria egiten badu, paseo motzagoa eta gero kafetxo bat hartzera joaten gara, eta eguraldi ona egiten badu, paseoarekin betetzen dugu ordu hori.

4. Jaio nintzenetik. Geroago, Lazkaoko ikastolaren sorreran, 1963an, lehenengo irakasleetako bat izan nintzen.

6. Oso gustura aritzen naiz, oso gustura ibiltzen naiz, eta pentsatzen dut beraiek ere gustura ibiltzen direla eta zerbaitetan lagunduko diela.



Nekane Otaegi Labaka

1. Aspalditik ezagutzen dut, baina ez dizut esango zehazki noiztik. Maizpiden irakasle izan naiz, eta ekimen honetan hasiera-hasieratik hartu nuen parte.

2. Jende berria ezagutzeko aukera ematen dit, alde batetik, eta beste alde batetik, gauza berriak ikasteko aukera. Duela gutxi, mintzalagunek azaldu zidaten zer den chat GPT, adibidez.

3. Eguraldi ona egiten badu eta mintzalagunek nahi badute, paseotxo bat ematen dugu, eta gero kafetxo bat hartzen dugu elkarrekin. Eguraldi txarra egiten badu, zuzenean tabernara joaten gara, eta kafetxoa hartzen dugu.

4. Lehen esan dizudan bezala, euskara izan da nire bizibidea; Maizpideko irakaslea izan naiz eta euskaraz bizi izan naiz. Nik etxean ikasi nuen, nire ama-hizkuntza euskara da, baina gero eskolara joan nintzenean dena gaztelaniaz zen. Nire irakaslea Burgoskoa zen, euskaraz ez zekien ezer eta nik gaztelaniaz ez nekien ezer.

6. Oso positiboki baloratzen dut. Euskaldun berriari konfiantza ematen diolako euskaltegitik kanpora ere euskaraz hitz egiteko. Askotan pasatzen da, euskaltegian hitz egitea, baina gero kanpoan beste gauza bat izaten da, beldurra, lotsa, gauza asko izaten dira. Euskaldun zahar batekin, euskaltegitik kanpora, hitz egitea iruditzen zait, euskaldun berriarentzat, positiboa dela, eta guretzat, euskaldun zaharrentzat ere bai.

KILOMETROAK JAIA



Zer da?

Kilometroak Gipuzkoako Ikastolen aldeko jaia da. 1977an sortu zen, euskarazko hezkuntza sendotzeko eta ikastolei laguntza ekonomikoa emateko.

Nola eta zertarako sortu zen kilometro jaia?

Herritik eta gurasoen ekimenetik. Ikastolek baliabide ekonomiko gutxi zituzten garaian, komunitateak festa handi bat antolatzea erabaki zuen dirua biltzeko. Urtero ikastola batek antolatzen du, eta ibilbide baten inguruan ospatzen da, kultur eta jai giroan.

Ikastolen proiektua ezagutarazteko, garatzeko eta dituen premiei erantzuteko egiten da.

Zergatik sortu zen?

Euskarazko hezkuntza bermatzeko eta azpiegiturak hobetzeko beharragatik. Garai hartan ikastolak ez zeuden behar bezala finantzatuta, eta herri ekimenak funtsezkoak izan ziren haien jarraipena ziurtatzeko.

Zein helbururekin?

Garai batetik hona helburuak ez dira aldatu. Ikastolentzat dirua lortzeaz aparte, euskal kultura eta nortasuna zabaltea da beraien asmoetako bat. Horrez gain, euskararen erabilera eta prestigioa sustatzea ere bada. Ez hori bakarrik, komunitatea aktibatzea eta kohesioa indartzea da beste helburuetako bat.

Bukatzeko, elkarlana ere bada kilometroak jaiaren helburuetako bat. Jai handi hau aurrera ateratzeko behar delako inguruko ikastoletako langileen zein ikasleen laguntza.

Noiz egiten da kilometro jaia?

Urriko lehen igandean egiten da; aurten, urriaren 4an. Bi arrazoi hauengatik: alde batetik, praktikoagoa delako ikasturte hasieran egitea. Beste aldetik, Franco hil aurretik, urtero urriaren lehenengo igandean Aizkorriren magaleko Urbiako zelaietan festa abertzalea antolatu ohi zen. Frankismoaren amaierarekin, Kilometroak sortu zuten lehenengoen dinamika horri jarraipena ematea erabaki zuten, hortik aurrera hizkuntza, kultura eta ikastolaren aldeko aldarrikapena eginez.

LAZKAOKO IKASTOLA eta KMK

60ko hamarkadan euskaraz hitz egitea eta ikastea debekatuta zegoenez, hizkuntzari bultzada bat emateko asmoarekin sortu ziren ikastolak.

Elizaren babesean, Jaxinto F. Setienek bultzatuta sortu zen Lazkaoko Ikastola 1963an San Migel izenarekin. Euskaraz ikastea debekatuta zegoenez eta eraikin baten faltan, klaseak leku desberdinetan ematen ziren, etxeetan, garajeetan eta elizak utzitako lokal batzuetan.

Garai horretan Lazkaon bi ikastetxe ofizial zeuden, Eskola Nazionalak eta Beditarrak. Azken hauen laguntzarekin 1970ean Lazkaoko Ikastola legalizatu egin zen eta izena aldatu zitzaion. San Migel izatetik San Benito deitzera pasatu zen. Gurasoen dirulaguntza ekonomikoarekin eta beraien eskulanarekin 1973an Mikelar eskola zabaldu zen. Haurrek 9 urte arte Lazkaon ikasten zuten, eta gero Beasaingo Lizeora joaten ziren. Hori dela eta, lotura handia zegoen bi ikastetxeen artean.

Erakundeen laguntza ekonomikorik ez zegoenez, dirua lortzeko asmoz ekitaldi bat antolatzea pentsatu zuten.



Orduan, J. Erguin beasaindarrak, Kaliforniako eredu batean inspiratuta, egun osoko jai bat antolatzea proposatu zuen. 6 km-ko ibilbide bat izango zen eta bertan txosnak eta hainbat ekitaldi egongo ziren. Parte hartzaileek egiten zuten kilometro bakoitzagatik dirua emateko aukera zuten. Ondo aterako zen zalantza zuten, hala ere, antolatzaileek lan asko eta ona egin ondoren aurrera egitea erabaki zuten. Horrela jaio zen “KILOMETROAK,” Gipuzkoako Ikastolen jai.

Lehenengo KMK jaian 15.000 pertsonak hartu zuten parte eta, arrakastatsua izan zenez, urtero antolatzea erabaki zen, baina herri desberdinetan eta herri horretako ikastolak antolatuta. Urte batzuk geroago Euskal Herriko herrialde bakoitzean antzeko ikastolen jaiak antolatzen hasi ziren: Bizkaian *Ibilaldia*, Araban *Araba Euskaraz*, Nafarroan *Nafarroa Oinez* eta Ipar Euskal Herrian Seaska ikastolen federazioak *Herri Urrats*.

Esfortzuak merezi izan du. 1963an Lazkaoko Ikastola 15 ikasleekin eta 2 irakasleekin hasi zen eta gaur egun 0-18 urte arteko ikasleak hartzen ditu eta 1.137 ikasle eta 112 irakasle daude.

AURTENGO EKINTZAK

Lazkaotarrok eskarmentu handia daukagu Kilometroak antolatzen. Hala ere, beti berritzeko grina izaten da, eta are gehiago aurtengo: 50. edizioa denez, Lazkaon lantalde jendetsuak antolatu dira ekintza erakargarriak eskaintzeko. Hauen asmoa adin guztietakoak euskaraz bizitzeko, gozatzeko eta biltzeko aukera izatea da. Hau guztia prestatzeko, hainbat batzorde lan eta lan ari dira. Hona hemen aurtengo ekintzen laburpena:

Lekukoaren iritsiera

Behin Elgoibarren 49. edizioa bukatuta, lekukoa Lazkaora iritsi zen 2025eko urriaren 10ean.

50. edizioaren aurkezpen ekitaldia

2025eko azaroaren 28an 50. edizioaren aurkezpen ekitaldia egin zen. Arratsalde polita izan zen Ikastolan, dantzarekin eta musikarekin aurtengo edizioa aurkeztu zen, leloa (Ibilian-ibilian buelta!) eta logoa ezagutarazteko ere aprobeztatu zen.



San Silbestre lasterketa

Urtero bezala, Lazkaon, 2025eko abenduaren 31n San Silbestre lasterketa egin zen, baina honetan Kilometroei keinu berezia egin zitzaion. Kamisetetan Kilometroetako leloa jarri zen. 600 pertsona inguruk parte hartu zuten eta beste asko hurbildu ziren animatzera urteari euskaraz agur esatera, giro zoragarrian.



Kilometro txikia

2026ko otsailaren 7an Kilometro txikia ospatu zen. Gozatzeko eguna izan zen. Hasteko, herri osoan zehar ibilaldia egin zen, Harizti Haundi parkea zeharkatu ondoren Beneditarren zubitik pasatzeko aukera izan genuen. Lazkao Txiki plazan jolasak, musika, erakusketa eta salda eskaini ziren. Geroxeago, joko batzuk



egin ziren bertan, eta hortik, Arieriara abiatu ginen Basajaun eta Mari erraldoi eta buruhandiekin topa egitera, bazkalordura arte dantzan eta korrika ibili ziren. Bazkarira 400 lazkaotar inguru hurbildu ginen Ikastolako patio itxira. Hortxe, lau paela-ontzi erraldoi prest zeuden denok bazkaltzeko. Bazkalostean, plazan jolasak egin ziren ume guztientzat eta arratsalde ederra bukatzeko, erromerian denak dantzan jarri ziren.

Lilatoia

2026ko martxoaren 1ean urtero Lazkaotik emakume korrikalariak joaten dira Donostiara emakumezkoen alde korrika egitera. Aurten Kilometroen 50. edizioa dela medio, Ikastolak talde bat osatu nahi zuen 50 emakumerekin. Hau sorpresa! 50 emakume baino gehiago apuntatu baitira. Aupa emakumeak!

Lazkaoko Rallya

2026ko martxoaren 13an eta 14an Lazkaon, urtero bezala, Rally Sprinta antolatuko da, autozale eta jakinguratsus asko biltzen dituen ekintza da eta bertan Goierriko xarma sumatzen da. Horregatik, edizio honetan lasterketak Kilometroak jaiarekin bat egin du.



Korrika

2026ko martxoaren 28an Korrika Lazkaora dator. Kilometroek eta Korrikak helburu nagusi berak dituzte, eta lazkaotarrok horrekin bat egingo dugu.

Liburu ibiltaria

Euskal Herri osoan, ikastolaz ikastola liburu bat sortuko da, hau da, liburu kooperatibo bat, ikasleen artean, sortuntza sustatzeko eta elkarrekin lan egiteko. Liburu hau martxan dago.

Mendi-metroa

Egun jakin batean Gipuzkoako Ikastola bakoitzak gertu duen mendiren batera igotzeko irteera prestatuko du. 50. edizioa denez, 50 mendi tontor konkistatzea da helburua. Horrela, herri partaidetza eta herrien artekoa sustatu nahi da naturan egun polita pasatuz.

50. edizioko ospakizuna

Kilometroetako edizio hau berezia denez, sortzaileei omenaldi bat egitea merezi du, eskertza ospakizun batean. Data zehaztu gabe dago aldizkari honen itxieran, baina aurrerago argitaratuko da.

San Prudentzio jaien txupinazoa

Kilometroen garrantziagatik aurten Ikastolak San Prudentzio jaietako txupinazoa botatzeko Kilometroen aldeko hautagaitza aurkeztu zuen Udalean. Herritarron bozkak lortzen zituen, beraz, San Prudentzio jaien txupinazoko gaia Kilometroak izango da. Txupinazoaren unea Kilometroetako abestiaren aurkezpena egiteko aprobetxatzea da asmoa. Honekin batera, Kantujiraren 10. urteurrena ospatuko da Ikastolako txiki eta gaztetxoekin.

Kilometroak

Kilometroak jaia urriaren 4an ospatuko da. Ibilbide bat prestatuko da, baina egitaraua oraindik ez da publiko egin, beraz, egon adi eta animatu! Denok ekintzetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu, Kilometroek haien helburuak lortzeko denon partaidetza eta presentzia aktiboa ezinbestekoa baita.

Bildutako diruaren xedeak

Euskararen erabilera sustatzeko asmoaz aparte, lortutako diruak Lazkaoko Ikastolari berritzeko aukera ematen dio. Alde batetik, Ikastolaren proiektu pedagogikoen beharrak asetzeko eta beste aldetik, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako espazioak berritzeko.



Zein adimen artifizialek egiten du ondoen euskaraz?

Adimen artifizialaren gaineko gogoeta puri-purian dago gaur egun. Galdera batzuk jarri dizkiegu adimen artifizialei (Bing Copilot, Chat GPT eta Gemini-ri) erantzun zuzenenak zeinek ematen dizkigun jakiteko.

Hasi baino lehen, ohar bat (edo lehenbiziko oharra): Adi egon, batzuetan ez digu espero duguna ematen eta! Jarraian alderatuko dugu, atalez atal, zein adimen artifizialek egiten duen hobeto lan bakoitza:

Zuzenketak

1. Testu originala (laburtua)

“Azken urteotan, guraso asko kezka bera partekatu dugu: gure seme alabak informazio sexualarekin gero eta lehenando, eta modu dezegokian, harremanetan jartzen ari dira...”

Zer egin duen AA bakoitzak

AA	Zer egin du?	Estiloa	Oharrak
Gemini	Testua zuzendu eta azalpen linguistiko zehatzak eman ditu.	Formala, argigarria.	Akats tipografikoak, ortografikoak eta komunztadura arazoak identifikatu ditu.
Chat GPT	Testua zuzendu eta esaldiaren ordena hobetu du.	Zaindua, naturalagoa.	Irakurgarritasuna hobetzeko berrantolaketa egin du.
Bing (Copilot)	Testua zuzendu eta taula labur bat sortu du.	Praktikoa, egituratua.	Jatorrizkoa eta zuzendutako forma taula batean eman ditu.

Akats nagusiak (AA guztiek antzeman dituztenak)

Jatorrizko forma	Zuzendutako forma	Akats mota
lehenando	lehenago	Akats tipografikoa
dezegokian	desegokian	Ortografia
seme alabak	seme-alabak	Hitz elkartua
Adietuen	Adituen	Ortografia
%70ak	%70ek	Kasu-markaren akatsa
kontumitzrn	kontsumitzen	Akats tipografikoa

Hiru AAek akats berberak identifikatu dituzte eta testuaren bertsio zuzen eta argia eskaini dute. Desberdintasun nagusiak estiloan eta azalpen-mailan daude.

Gramatika

Atala	Edukia
Egindako galderak	Gramatikari buruzko hiru galdera jarri dizkiegu: 1-Nor-nori-nork aditz laguntzailearen taula. 2-Aditz trinkoen kasuan nola jokatzeko da baldintza eta ondorioa? 3-Nor-nori subjuntiboa
Bing Beard Chat	Ezinezkoa izan da aztertzea, ezer baino lehen gure e-maila eskatzen baitigu, eta emanagatik ere, berak ez baitigu erantzunik eskaintzen.
ChatGPT	1-Ondo. Erantzun zuzenak eman dizkigu. 2-Ez behar bestekoa. Osatu gabeko erantzunak: "dator, etorriko balitz/etorriko litzateke; doa, joango balitz/joango litzateke; dakar, ekarriko balu/ekarriko luke", "baldintza eta ondorioa egiteko, aditz trinkoa "desegin" eta forma arrunta erabiltzen da". Ez digu erantzun zuzenik eman! Nahi genukeena da: baletor/letorke, balihoa/lihoake, balekar/lekarke. 3-Gaizki. Ez du ulertu eskatu dioguna. Nor-nori formen ordean, Nor-nori-nork subjuntiboa proposatu digu, eta erantzun okerrak eman. Adibidez: "Nik niri diezadan/Nik guri diezagudan" edota "Zuk zuri diezazuzun/Zuk zuei diezazuezu(n)". Bere azalpenak ere oso nahasgarriak dira: esaterako, "etor dadila", nahasten du agintera eta subjuntiboa!
Gemini	1-Akats batzuk : "dida" (dit) / "zizkidat" (zizkidan) 2-Akats batzuk. Joan: hura "balindoa" (balihoa) / "lindoake" (lihoake) 3-Akats batzuk: "zakidan" (zekidan) / "zakion" (zekion). Akats horiek izan ezik, erantzun zuzenak eman dizkigu, eta ulertu du zer galdetzen diogun.
Ondorioa	Orduan, euskal gramatikari dagokionez, esan genezake Gemini Chat Gpt baino hobeto moldatzen dela.

Itzulpenak

Atala	Edukia
Zer egin dugun	Gaztelaniazko testu bat hartu dugu euskarara itzultzeko. Testu bera eman diegu hiru adimen artifizialei.
Chat GPT	Testua itzultzen duenean, konturatu gara erlatiboekin arazoak dituela, hitzez hitz itzultzen duelako. Begi bistakoa da gaztelaniaren eragina duela, ez baitio erreparatzen euskararen sintaxiari eta zuzenean gaztelaniaren forma gramatikalera jotzen baitu. Era berean, esaldi oso luzeek ekiten die itzulpena egitean, eta horregatik sortzen dira arazoak euskaraz. Euskaraz, normalean, esaldiak ez dira hain luzeak, eta tresnak akats batzuk sortzen ditu ordenan. Halaber, aditzaren atzerakarga eragiten du, hau da, aditza oso atzean jartzen du, gaztelaniaz bezala. Azpimarratzekoa da ondo hasi dela itzultzen baina gero nahastu egin dela. Ondorio gisa: erabat desitxuratzen du esanahia eta ulergaitz bihurtzen du.



Gemini	Gauza bera gertatu zaio: gaztelaniaren eraginagatik esaldien ordena gaizki egiten du. Alabaina, badaude hitz batzuk makinak antzematen dituenak, bereziak direla eta nahiko ondo egokitzen zaio esanahiari. Adibidez: "zantzuak" "evidencias" hitzari erreferentzia egiteko. Itzultzeaz gain, oharrak eta azalpenak egiten ditu testuingurua hobeto ulertzeko. Gaizki hasi da, baina gero testuak hobera egin du.
Bing	Ez du itzulpenik egiten, hainbat aldiz saiatuta ere.
Konparaketa orokorra	Hirurak konparatuz: Geminik Chat GPTk baino hobeto egiten ditu itzulpenak, baina horrek ez du esan nahi ondo egiten dituenik. Kontuz! Oraindik ez du ondo itzultzen.

Euskal Kulturaren ezagutza

Atala	Edukia
Egindako galderak	Zer da euskara batua? Euskal Herriko hezkuntza sistema azaldu. Euskal herritarren ezaugarri nagusiak azaldu. Euskal hiriak eta euskal herriak, zein desberdintasun daude haien artean?
Chat GPT	Chat GPTek erantzun laburrak ematen ditu.
Gemini	Geminik erantzun luzeagoak ematen ditu, eta euskara hobea da.
Bing	Bingek ez du ondo egiten, wikipediara bidaltzen gaitu.

Inkestaren emaitzak

Inkestak erakusten du gero eta gehiago erabiltzen dela adimen artifiziala euskaraz ikasteko, batez ere idazketa, gramatika eta itzulpenak lantzeko. Parte-hartzaileek konfiantza ertaina dute tresnetan, eta gehienek emaitzak egiaztatzen dituzte. Oro har, AAren eragina positiboa da ikaskuntzan, nahiz eta oraindik akatsak egin eta zuzenketa behar izan.

Gomendioak: nola erabili AA euskara zentzuz ikasteko

Adimen artifiziala oso lagungarria izan daiteke euskararen ikaskuntzan, baina erabilera arduratsuak eta kritikoak behar dira. Hona hemen kontuan hartu beharreko orientabide nagusiak:

1. Erantzunak ez dira egia absolutuak

AAk laguntzen du, baina akatsak egiten ditu gramatika, itzulpenetan eta esaldien egituren. Horregatik, komeni da beti emaitzak egiaztatzea hiztegiak, Euskaltzaindiaren baliabideak edo bestelako iturriak erabiliz, edo irakasleei galdetuz.

2. Ez utzi AAk zure ordeztasunaren zere dezan

Idazteko edo itzultzeko lagungarria bada ere, azken erabakia beti erabiltzaileak hartu behar du. AAren proposamenak zuzenketa-tresna gisa erabiltzea da egokiena, ez automatikoki kopiatzeko.







3. Pentsatu beti helburua zein den: ikastea

AAk ez du zure ordeztasunaren zere dezan. Galderak egiteko, zantzuak argitzeko eta adibideak sortzeko tresna bikaina da, baina ez du ikasketa aktiboa ordezkatzeko.




ADIMEN ARTIFIZIALA EUSKARAZ - Emaizten dashboarda

Adimen Artifizialaren erabilera euskara ikasteko | 2026ko Otsaila



AAren eragina euskararen ikaskuntzan



Batere ez (%5.3) Gutxi (%13.2) Pixka bat (%50.0) Bai, asko (%31.6)

Iturria: Adimen Artifiziala euskaraz inkesta | 2026ko Otsaila | n=63 parte-hartzaile



AIZPEAKO MEATEGIA, BURDINAREN MENDIA

Lazkaotik autoz 15 minutura dago Zerain, Goierriko herri eder bat, 300 biztanle baino gutxiago dituen. Bertatik 3 kilometrora Aizpeako meatzea aurki dezakegu, Euskal Herriaren historian garrantzia handia izan duena.

Gure bisita interpretazio zentroan hasi da, Aizpittan, XIX.mendean ingelesek eraiki zuten etxebizitzan.

Azalpenak eman dizkigun ikus-entzunezkoaz gozatu ondoren, Aizpeako meategira joan gara, meatzea bera ikustera: labeak, biltegiak, mineralak eta galeria.



Bertan ikus daiteke gaur egungo paisaian, ekonomian, gizartean zein arlo soziokulturalean nolako eragina izan duen.

Prozesua egiten zen toki bi parke naturalen artean dago, Aizkorri - Aratz eta Aralarren artean, toki izugarria!



Burdin karbonatoa meategiko aberastasun nagusia izan zen

Zeraingo eta Mutiloako inguruan burdinaren erauzketa eta erabilera Erdi Arotik dator. Garai horretan, oso era artisauean lortzen zuten burdina. 1515. urtean, Fernando Katolikoak ustiatzeko baimena Aretxabaletako familia bati eman zion. Haiek dira ezagutzen ditugun lehenengo jabeak. Metala Gipuzkoako burdinolak elikatzeko erabili zuten.



XIX. mendean, legedi liberala zegoenez indarrean, meatze-kontzesioak partikularren eta meatze-konpainia berrien izenean jarri ziren. Lehen Karlistaldian karlistek lortu zuten meategia, eta, burdinaz gain, beruna ere bazegoenez, armak egiteko oso baliagarria egin zitzairen. Karlistekin hasi zen garairik emankorrena, XIX. mendean erdialdean, La Unión de Cerain elkarte meatzaria ustiapen sistematikoa egiten hasi zenean.



Horrek enpresa atzerritar batzuk (hasieran, batez ere, Britainia Handikoak) erakarri zituen mendean bukaeran. Ingeniari multzo txikiak bidali zituzten enpresa haiek, eta mineralaren purutasuna ikusita, *The Cerain Iron Ore Company* (kapital ingeles eta holandarrez osatuta) erosi zuen meatokia eta Goierriko 14 urtetik gora zituzten gizonen artean 150 meatzari inguru kontratatu

zituzten langile. Galiziar dezente ere bazeuden.

Hainbeste jende nonbait sartu ahal izateko, barrakoiak ugaritu ziren, eta haiekin batera, tabernak ere bai, nahiz eta aisialdirako denbora asko ez izan.

Gehienek aire zabalean egiten zuten lan, baina batzuk galerietan ere aritu ziren oso baldintza latzetan, gero aipatuko dugun bezala.

Hala ere, meatzaritza landako lanekin txandakatzen zuten, eta, haien ustez, meatzariak baino, nekazariak ziren. 1930eko hamarkadaren bukaeran alemaniarrek etorri ziren eta II. Mundu Gerra bitartean, meatokia ustiatu zuten eta sistema berriak ipini zituzten, batez ere metalaren garraioa ahalbidetzeko: adibidez, Ormaiztegiko geltokira zuzeneko aireko kable bat ipini zuten, burdinez beteta jaisten zena eta ikatzez beteta igo. 1942an gerran porrot egin zutenez, instalazioak bere horretan utzi behar izan zituzten.



Azken jabea Patricio Echeverría izan zen, 50eko hamarkadan. Urte horietan bere siderurgiako labeak elikatzeko txatarra nahikoa ezin zuen lortu, eta horregatik Zeraingo meategiko burdinak bere interesa piztu zuen. 1961era arte ustiatu zuen. Urte horretan, meategia betiko itxi zen.

Burdina ateratzeko prozesua

Hasieran, berun sulfuroa ustiatzen zen, baina pixkanaka-pixkanaka, burdinaren erauzketa protagonista bihurtu zen, aztarnategiko goiko geruzetan baitzegoen eta erraza baitzen lortzea, baina egun batean bukatu egin zen.



Horren ondorioz, meatzaritza konplexuagoa egin behar izan zuten, eta galerien bidez lurpean sartu. Galeriak egiteko, dinamita, pikoak eta palak erabiltzen zituzten eta, noski, ilunpean lan egiten zutenez, kandelak ere ba-zeuzkaten. 10 orduko lanaldiak egiten zituzten.



Horrez gain, hiru labe indartsu arduratzen ziren ikatzaren bidez karbonata deskonposatzeaz. Hain zuzen ere, geruzak egiten zituzten kaltzinatu gabeko burdina eta ikatza tartekatuz, behin eta berriro, labea bete arte.

Bestalde, materiala garraiatzen zuten, barneko trenbide baten bidez eta plano inklinatuekin. Prozesu hauen ondorioz, paisaia guztiz aldatu zen, eskoria eta keagatik.

Bitxikeriak

Meatzea bisitatzeaz gain, hainbat gauza bitxi ere deskribitu ditugu!

Esaterako, Zerainen, udaletxearekin batera, kartzela bat eraiki zuten, 1711. urtean. Gipuzkoan zutik dirauen XVIII. mendeko kartzela bakarra da, eta, gaur egun, badago bisitatzea, horregatik, guk ere aprobetxatu genuen hara joateko. Nabarmenena da kartzela "Ostatu" jatetxearen barruan dagoela eta garai hartako eraztunak eta presoak kateatzeko loturak ikus ditzakegula. Zuek jakin dezazuen, hemengo presoak behartuta zeuden meatze guneetan lan egitera. Ikaragarria!

Gainera, badirudi, gerra garaian, meatzea alemaniarren esku zegoela, bertan espia batzuk ere ibili zirela. Sofindus espioitza enpresak nazientzat egiten zuen lan, nonbait. Eta, ba al zenekiten meatzearen aurrean dagoen baserri itzel batean jaio zela Goya margolariaren birraitona? Hain zuzen ere, "Mantxola" baserrian; horregatik, Goyak hainbat lanetan Euskal Herriari erreferentzia egiten dio.



Azkenik, luze iraun duen beste kontu bat! Garai hartan, gutxiren esku zegoen medikuarenera joatea, baina meategietako lanaren gogortasuna kontuan hartuta, osasun arreta lortu zuten, eta Mutiloakoek eta Zeraingoek mediku zerbitzua partekatzen zuten. Gaur egun ere egoera horrek berdin jarraitzen du.

Gonbidapen bat

Hain izan da berezia egin dugun bisita eta ezagutu dugun guztia, non guk ere Burdinaren Mendia ezagutzera gonbidatzen zaituztegun. Horretarako, bi aukera daukazue: alde batetik, bisita gidatu bat egitea (erreserba bidez), eta, bestetik, meatzearen ingurua ezagutzera joatea zeuen kabuz. Modu horretan, garai hartako ingeles edo alemaniarren trenbideak ikusiko dituzue, eta gainera, mendi bide asko ere bertatik pasatzen dira.



Gehiago jakin nahi baduzue, jarri harremanetan turismo bulegoarekin. Mereziko du!

Bukatu baino lehen, eskerrak eman nahi dizkiogu gure gidariari, Aloña Aranbururi, hain azalpen baliagarriak emateagatik.

EUSKALKIEN JOKOA

Ziur aski, noizbait, urruneko herri bateko norbaitekin euskaraz hitz egiten ari zinela, ezagutzen ez duzun hitz bat entzungo zenuen, eta hiztegian bilatzean, ezinezkoa gertatu zaizu hitz hori aurkitzea. Bada, ziurrenik, hitz hori euskalki jakin batekoa izango da. Baina, zer da euskalkia? Adituek esaten dute euskalkiak euskararen dialektoak direla; hain zuzen ere, Euskal Herriko lurraldeetan agertzen diren hizkerak. Gaur egun, esaten dute sei euskalki nagusi direla; hots, mendebaldekoa (Bizkaian, Arabako zati txiki batean, eta Gipuzkoako mendebaldean agertzen dena), erdialdekoa (Gipuzkoako toki gehienetan eta Nafarroako zati txiki batean), nafarrera (Nafarroako mendebaldean eta Gipuzkoako iparraldean agertzen dena), ekialdeko nafarrera (Erronkarin agertzen zena), nafar-lapurterra (Baxe Nafarroan, Nafarroako beste zati txiki batean eta Lapurdin agertzen dena) eta xiberera. Sei nagusien azpian ere badira euskalki askoz gehiago. Nahiz eta denak euskara izan, oso aberatsak eta desberdinak dira. Bakoitzak aberastasun lexiko, fonetiko eta kulturala eskaintzen du, eta gure ondarea sendotzen dute.

Batzuetan euskalki horietako hitz batzuk oso antzekoak izan daitezke euskara batuan agertzen direnekin. Beste batzuetan, aldiz, izugarri desberdinak izan ahal dira. Kasu honetan, guk hitz berezi horietako batzuk bildu ditugu eta ondoan ikusten duzun maparen inguruan idatzi ditugu.

Osatu taula bertan agertzen diren hitzen baliokideekin, eta zein zonaldeetan erabiltzen diren adieraziz (euskalki bakoitzari hiru hitz egokitu dizkiogu).



BATUAN	EUSKALKIAN	ZONALDEA
Koska egin		
Zartagina		
Kaioa		
Antolatu		
Aritu		
Zaunka		
Bekaina		
Larrua jo		
Platera		
Oihartzun		
Aurpegia		
Kopeta		
Kirastu		
Enbor		
Jaio		
Antza denez		
Jolastu		
Ardoa		

- 1: BIZKAIERA
 2: GIPUZKERA
 3: LAPURTERA
 4: BEHE NAFARRERA
 5: ZUBERERA
 6: GOI NAFARRERA



JOXE LUIS DE MIGUEL GOGOAN

Ezustean eta pena handiz jaso genuen iaz hainbat urtez gure ikasle izan zen lizarratar lazkaoratuaren –gure maratoilari handiaren– heriotzaren albisteak.

Arrasto sakona utzi zuen ikaskideen nahiz Maizpideko langileen artean; izan ere, maitagarria eta goxoa izan zen bere egunerokoan, klasean nahiz korridoreetan, beti irribarretsu, beti txapela buruan.

Joxe Luis, zauden lekuan zaudela --artaldea aurrean, olatua gainean edota marra urdinari so— **SEGI EZAZU KORRIKA... ZINTA KOPE-TAN ETA IKURRIÑA LEPOAN!**

42 besarkada pasatxo Maizpidetik!



EUSKARA, BIZI

Lazkao 18/19

FERNANDO GONZALEZ DE LANGARICA ELORRIAGA, beti gure gogoan!

Martxoaren 1ak halako isiltasun sakon batez hartu gintuen, gure ikasleetako bat, ikaskide eta laguna, txalapartari bat, joan baitzitzaigun.

Fernando, zuk egurraren kontra jotako kolpeak isildu direnean ohartu gara benetan zer oihartzun utzi duten gure artean.

Txalaparta da euskal kulturaren sinbolo bizietako bat, bi lagunen artean sortzen den elkarrizketa, entzutean eta erantzutean eraikitzen den erritmoa. Ez da bakarkako soinua; elkarrekin sortzen den hizkuntza da. Partekatzeta da. Eta, nolabait, hori bera izan zara zu ere, Fernando, taldean, besteekin batera, kolpez kolpe eta pausoz pauso, zure tokia eraikitzen jakin duzun laguna.

Maizpiden partekatu ditugun on-lineko saio eta une askotan entzun dugu txalapartaren hotsa zure ahotsean. Egurraren gainera eroritako kolpe bakoitzean, zure hitz bakoitzean, bazegoen ikasketa bat, konfiantza eta adiskidetasuna. Halakoetan, musikak komunitatea sortzen duela sentitzen da; eta horretan ere utzi zenuen arrasto, Fernando.

Baina bazegoen zure beste begirada bat ere: kameraren atzetik mundua behatzen zuenaren begirada. Argazkigintza maite zenuen, eta zure argazkien bidez, une txikiak eta edertasun isilak harrapatzen zenituen. Iaz, gainera, opari berezi bat egin zenigun: ikaskide bakoitzarentzat, eta irakaslearentzat ere bai, egutegi bana prestatu zenuen zure argazkiekin. Keinu xume baina eder horretan ere agerian geratu zen nolakoa zinen: beti partekatzeko prest, besteengan pentsatzen zuen laguna zinen.

Gaur hutsune handi bat nabari dugu: zurea. Baina txalapartaren tradizioak berak gogorarazten digu erritmoak ez direla erabat desagertzen, beste esku batzuetara pa-

satzen direla, beste belarri batzuek jasotzen dituztela, eta horrela jarraitzen dutela bizirik. Zeuk ere, zeure kolpe eta presentziarekin, gure artean erritmo horixe bera partekatu zenuen, sekula desagertuko ez den erritmoa.


Zure ikas-taldearen eta Maizpideko lan-talde guztiaren izenean, doluminik beroenak helarazi nahi dizkiegu familiari, lagunei, zure txalapartakideari, eta, oro har, txalaparta komunitate osoari.

Zure ohol hotsek sortutako doinua eta zuk utzitako argia zure kamerak jasotako argazkietan bezala geratuko dira iltzatuak gure gogoan. Eta hainbeste miresten zenuen F. Muguruzaren kanta batek dioen bezala, *EGURRALDI LAINOTSUA* utzi duzu *HIRIBURUAN!* Ez dakit zein den *bizi diren gertaeren eta gogoratutakoen arteko desberdintasuna*, baina zu bizi izan zintugun, eta gogoratu egingo zaitugu, bizirik izango zara gure oroimenean. Adiorik ez, Fernando.

Lurrak goxo har zaitzala!

On-lineko B1eko zure betiko taldea: Txuri, Marike, Miguel Angel eta Aintzane, **eta oro har, Maizpideko lan-talde guztia.**

Lazkao, 2026ko martxoaren 9an.





maizpide